

Legazpiko Agenda 21eko Foroaren akta

2014ko 7. tailerra

Eguna: 2014ko irailaren 18an.

Lekua: udaletxeko Batzar Aretoan.

Ordutegia: 18:30etik 20:15era.



Kalitatezkoa al da Legazpin arnasten dugun airea?

Zein datu eskaintzen dute Urola Garaian airearen kalitatea neurtzeko dauden estazioek? Zer/nolako eragina dute Legazpiko topografiak eta meteorologiak arnasten dugun airean?

Horiek eta beste galdera batzuk izan ditugu gaurko Agenda 21eko Foroan hizpide. Arnasten dugun airearen kalitatea beti izan da gure intereseko kontua.

Horretarako, Fisikan lizentziadun eta Ingurumen-ingeniaritzan doktore den Amaia Albizuri izan dugu gure artean. Amaiak 30 urte baino gehiago daramatza airearen kutsadura aztertzen Environment and Systems enpresan. Horrela, lan ugari egin ditu Euzko Jaurlaritzarako eta, bestalde, 2012an Zumarragako Udalarentzako egin zen azterketaren egile da, beste batzuekin batera. Lan horretan PM₁₀ zatikien maila aztertu zen.

Aurkezpen ederra eskaini digu, datu kuantitatiboak, grafikoak eta azalpenak barne eta horri esker aukera izan dugu zalantzak, iruzkinak, proposamenak eta bizipenak trukatzeko. Benetan interesgarria izan da! Ikus dezagun horren laburpena.

1. Nortzuk? Parte hartu duten pertsonak

Foroaren udako atsedenaldiaren ondoren, indarberrituta etorri gara eta **ia hoge** legazpiar bildu gara Batzar Aretoan.

Milesker beste behin zuen konpromisoagatik!

Montse Vallejo – M^a Cruz Lizarazu – Gurutze Laboa (Ingurugela Legazpi) – Manuel Fernandez – Patxi Imaz – Igor Rojo – Floren Gutierrez – Isa Sanz – Xabier Baztarrika (Buskabaso) – Rafa Gomez (Buskabaso) – Juan Carlos Agirre – Feli Nuñez – Pilar Makibar – Pedro Agirre – Josune Makaia (UGGASA) - Kepa Urzelai (Alkatea) - Igor Urrate (zinegotzia) - Inma Hernandez (Agenda 21eko teknikaria) – Amaia Albizuri (Environment and Systems) – Iciar Montejo eta Zorione Aierbe (Prometea)



2. Hasierako berriak: "albisteak"



Tailerrari hasiera emateko, Inma Hernandez teknikariak Legazpiko Agenda 21eko Foroarekin zerikusi duten **berriak** azaldu dizkigu. Jaso egin ditugu!

1. Mugikortasunaren astea ospatzen ari gara Legazpin.

- Irailaren 16an 150 bat pertsonak hartu zuten parte "Bizikleta martxan".
- Astean zehar joan-etorriak bizikletan egingo dituzten legazpiarrek saria jasoko dute.
- Eta Junetorri autobusa doan erabili ahal izango da.

2. Irailaren 20an, **Erreka Eguna** ospatuko dugu Legazpin.

- Aurten, 150 bat pertsonak hartuko dute parte larunbat goizean erreka garbitzeko egingo den ekintzan.

3. Laster, martxan jarriko da Legazpiko **Agenda 21eko online Foroa**.

- Estreintatu berri den udal webean Agenda 21ek atal berezia du: <http://www.legazpiko-udala.info/es/bizi-2/desarrollo-sostenible/que-es-la-agenda-21>
- Bertan aurkitzen diren edukien artean leku berezia du online Foroak: hileroko Foroa osatzea eta aberastea helburu duen parte hartzeko espazio birtuala. Espazio hori zuekin proposatu eta diseinatutako espazioa da eta urriaren 9an egingo dugun tailerrean jarriko dugu martxan.



4. Adi!: Legazpiko **Agenda 21eko Foroan** aztertuko den **hurrengo gaia eta aldaketak egutegian**.

- Foroaren datozen tailerretan Kale Nagusia oinezkoentzako egokitzeko egin beharreko berritze-lanak aztertuko ditugu. Hauek izango dira egunak:



- Urriaren 9an, osteguna
- **Urriaren 30ean, osteguna** –eta ez azaroaren 6an, hasieran aurreikusita zegoen moduan–.
- Abenduaren 4an, osteguna

Hemen espero zaituztegu!

3. Gaurko gaia: Airearen kalitatea Legazpin

“Airearen kalitatea Urola Garaian, joera eta eragiten duten faktoreak”; horixe da bere aurkezpenerako Amaia Albizurik aukeratu duen izenburua.

Zertaz hitz egin digu? Bere parte hartzea 2 puntu nagusitan zentratu da:



1. Alde batetik, **airearen kalitateak Euskadiko Autonomia Erkidegoan eta Urola Garaian duen joera** erakutsi digu.

- Horretarako, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Airearen kalitatea zaintzeko Sarean neurtzen diren kutsatzaile nagusien baloreen irakurketan oinarritu da. Kasu honetan Zumarragan, Azpeitian eta Beasainen dauden estazioetako datuak hartu dira aintzat.
- Hauek dira aztertu diren kutsatzaileak: O₂, CO, NO-NO₂, O₃ y PM₁₀ y PM_{2,5}. Osasunean duten eraginari dagokionez, guztiek arnasteko arazoak sortzen dituzte -osagai bakoitza bere espezifikotasunarekin-.

2. Bestetik, Zumarragan **PM₁₀ osagaiaren maila altuen aurrean bertako Udalak** 2012an eskatu zuen txostena nola egin zen azaldu du. Azterketa horren helburua gaiaz jabetzea zen, ondoren jarduketa eraginkorren estrategiak proposatzeko.

Laburtuz, zeintzuk dira atera ditugun **ideia nagusiak?**


Airearen kalitateari eta kutsatzaile desberdinen mailen bilakaerari dagokienez:

- ➔ **Hasierako kontu garrantzitsu bat: faktore askok dute eragina airearen kalitatean:** foku igorleak giltzarri dira –industria, trafikoa, berogailua...-, baita meteorologia ere –Urola Garaia eskualdearen kasuan erabakigarria da, aireztatzea eragozten duten mendien artean kokatzen den bailara delako-.
- ➔ **Euskadiko Autonomia Erkidegoari** dagokionez, azkeneko urteotan **hainbat osagaien mailak murriztu** egin direla antzeman da, hala nola CO, SO₂ –industria batzuetatik gertu dauden estazioetan-, PM₁₀ –zenbait estazioetan maila altuak antzematen diren arren eta hori da Zumarragaren kasua- eta NO₂ –industrien eragina dagoen estazioetan-.
- O₃ osagaiaren mailek ez dute joera argia erakusten.
- ➔ **Urola Garaia eskualdean** –Zumarragako, Beasaingo eta Azpeitiko estazioak-, **joerak desberdinak dira** kutsatzaile desberdinen arabera – urteen arabera ere desberdinak dira, besteen artean, baldintza meteorologikoek ere eragina dutelako-:

- **NO₂** osagaiak beheranzko joera du eta mugako legezko balioen azpitik mantentzen dira.
- **O₃** osagaiaren mailek goranzko joera dute; baina altuak diren arren, legezko mugen azpitik daude.
- **PM₁₀ osagaiak dira datu okerrenak erakusten dituztenak.** Zonaldeko zatikien mailak altu samarrak dira eta ezarritako mugako legezko balioen parekoak dira, 2007tik hona beheranzko joera duten arren.

Zehazki, 2009an 43 egunetan gainditu zen mugako balioa –legeak, aldiz, 35 eguneko muga ezartzen du-. 2010ean 20 egunera jaitسي zen.


2011n 42 egunetan gainditu zen berriro muga eta 2012an 28 egunera jaitسي zen.



Urola Garaian erregistratu diren PM₁₀ osagaiaren balio altuei dagokienez:

➔ Zumarragako Udalak **azterketa espezifiko**a egin zuen 2012an gai horri buruz:

- Azterketa horri esker, airearen kalitate txarra egon denetan baldintza meteorologikoen gaineko ezagutza eskuratu ahal izan da, batik bat PM₁₀ osagaiaren maileri dagokienez.
- Isuritako kutsatzaileak ez direla airean behar bezala barreiatzen ondorioztatu da eta horretan faktore meteorologikoen dute eragina – presio altuak, haize oso motela eta goialdeko aire-masaren subsidentzia (jaitsiera eta beroketa)-.
- Horri erantzuteko, erakunde eskudunek –Udalek, Eusko Jaurlaritzak, zonaldeko lantegiak– zatikien maila altuak eman ez daitezzen erabil ditzaketen adierazle batzuk identifikatu dira.



➔ Gaur egun, Zumarraga, Urretxu eta Legazpiko udalerriek **Ekintza Plan** bat lantzen ari dira elkar lanean.

- Informazio gehiago: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3614/es/contenidos/informacion/planes_calidad_aire/es_def/index.shtml

Datuak mahai gainean ditugula, **gogoeta interesgarriak sortu dira Foroko kideen artean**. Gogoeta horien ondoren proposamen zehatza egitera iritsi gara.



Kezkatuta gaude...

- Zumarragako estazioan eman diren PM₁₀ osagaiaren datuengatik.
- Legazpiko sarreran egunez egun bizi dugun egoerarengatik -kea, behelainoa, eztarriko errea...- eta, aspaldian udalerriko hainbat gunetan nabaritzen dugun metal-usainarengatik. Zergatik da hori? Ez litzateke beharrezkoa izango horren gainean azterketa bat egitea?
- Gai hau argi eta garbi azaltzen ez delako. Zergatik ez zaie behar bezala eta modu argian informazioa ematen dagozkien Udalei eta herritarrei?
- Arlo honetan Udalen esku hartzeko aukera oso eskasa delako. Eusko Jaurlaritzak da lantegietako ingurumen-kontrolaren ardura duena eta ikuskaritza-lanak ugaritu egin direla esaten bada ere, taldea ez dator baieztapen horrekin bat.
- Gai honen inguruan dikotomia eta beldurra sortzen delako. Zer egin? Pertsonen eta gizartearen osasuna babestu ala ingurumen gaietan legezko baldintzak betetzera behartu enpresak, haiek ixteko mehatxu egin arren?-. Osasuna eta ingurumen-kalitatea eta enplegua, bateragarriak al dira gure eredu ekonomikoan eta sozialean? Nola?

Eta horren aurrean, Legazpiko Agenda 21eko Foroak honako hau adostu du:

- **Eusko Jaurlaritzari Legazpiko herri-sarreraren gaineko azterketa egin dezala eskatzea, bertan ematen diren zatikien osagaiak ezagutzeko eta kutsadura-sortzaileak identifikatu ahal izateko.**

Gure helburuak lortze aldera egiten dugu eskari hori; horretarako, airearen kalitatea neurtzeko estazio mugikorraren lana egokitu egin beharko litzateke, ondorio erabilgarriak ateratzeko aukera izateko.



Denbora agortu zaigu eta amaiera eman diogu tailerrari.

4. Bukatzera goaz!

Eta sentipen kontrajarriekin bukatu dugu; alde batetik gure osasunean airearen kalitateak duen garrantzia dugu, bestetik gizarte konplexuan bizi gara eta, azkenik, zerbait egiteko aukera eskasa -edo ez horrenbeste- dugu, Baina, hala ere, gaia zorrotzaz eta modu irekian aztertu dugula uste dugu.

Eta, nola ez, atsegina izan da!



Eskerrik asko!
Urrian ikusiko dugu elkar!